

ikus puntua



Bizkaiko ekonomia La economía de Bizkaia #12 martxoa/marzo 2007

Hau txosten ekonomiko zabalago baten laburpena baino ez da,
web honetan eskura daitekeena:/
Versión reducida de un informe económico más amplio disponible en:

www.berrikuntza.bizkaia.net
www.camarabilbao.com

12

Behatokia		Observatorio
Bizkaiko ekonomi jarduerak tinko eutsi dio 2006an eta balio positiboak erdietsi ditu sektore guztietan.	+	La actividad económica de Bizkaia en 2006 se ha mantenido sólida, con valores positivos en todos los sectores.
Kanpo sektoreak eta ekipo ondasunen merkatuak izan duten bilakaera positiboari esker indartu egin da industri sektorearen jardura.	+	El buen comportamiento del sector exterior y del mercado de bienes de equipo afianza la actividad del sector industrial.
Enpresen %83k dio eskabide-zorroak hazi egin direla edo bere horretan dirautela.	+	La cartera de pedidos aumenta o se mantiene para el 83% de las empresas.
Produkzio gaitasunaren erabilera %87koa izan da, aurreko urtean baino ehuneko bi puntu handiagoa alegia.	+	La utilización de la capacidad productiva se sitúa en el 87%, dos puntos porcentuales por encima de un año antes.
Zerbitzuen sektoreko jarduerak hazkunde iraunkorra izan dute oro har.	=	Las actividades del sector de servicios muestran, en su conjunto, un ritmo de crecimiento sostenido.
Itsasoko merkatugaien trafikoa aurreko urtean baino are gehiago hazi da. Bidaiarien aire garraioak egonkor dirau.	+	El tráfico de mercancías marítimo continúa mostrando variaciones al alza superiores a las del año anterior. El transporte aéreo de pasajeros se mantiene estable.
Bizkaiko enpresen esportazioek hazten jarraitzen dute eta hazkunde dezente handia izan dute gainera.	+	Las exportaciones de las empresas de Bizkaia continúan mostrando un destacado crecimiento.
2006an 2.987 enpresa berri sortu ziren Bizkaian, hau da, aurreko urtean baino 208 sozietate gehiago.	+	En el año 2006 se crearon en Bizkaia un total de 2.987 nuevas empresas, cifra que supone un aumento de 208 sociedades con relación al mismo período del año anterior.
Lan merkatuak kopuru historikoak erdietsi ditu langabezi tasari dagokionez, %4an kokatu baita, hau da, 2,7 puntu jaitsi da 2005. urtearen aldean.	+	El mercado de trabajo alcanza cifras históricas que sitúan la tasa de paro en un 4%, lo que supone 2,7 puntos menos que la correspondiente al mismo período de 2005.
Hazkunde tasa motelduko bada ere, 2007rako aurreikuspenak oso positiboak dira eta oreka ekonomiko handiagoa izango dugu, industri jardura eta esportazioen merkatuak suspertu egin direlako.	=	Aunque se atenuará la tasa de crecimiento, las perspectivas de la economía de Bizkaia para 2007 continúan siendo positivas, gozando de un mayor equilibrio propiciado por la consolidación de la actividad industrial y la revitalización de los mercados de exportación.

Industria


Industri sektorearen jarduerak tinko dirau, batez ere ekipo ondasunen bilakaera positiboa izan delako eta esportazioen dinamismoa hazi egin delako.

Bilboko Merkataritza Ganberak egiten duen inkestatik lortutako Industriaren Konfiantza Adierazleak hazkunderako joera argia erakutsi du 2006an zehar, hartara, adierazle hau 2006. urtearen amaieran 2005aren amaieran baino hamalau puntu handiagoa izan da, hala ere, moteltzen hasi dela esan daiteke.

Industria

La actividad del sector industrial se mantiene sólida debido, en gran parte, al buen comportamiento de la de bienes de equipo y al mayor dinamismo de las exportaciones.

A lo largo de todo el año 2006 el Indicador de Confianza de la Industria de Bizkaia que elabora la Cámara de Comercio de Bilbao ha marcado una clara tendencia de crecimiento, que sitúa el valor del índice a finales de año catorce puntos por encima del correspondiente al mismo mes de 2005, si bien, se empiezan a percibir signos de ralentización.



Enpresen %16k adierazi dute 2006ko azaro-abenduan eskabide-zorro handiagoa izan dutela, horrela beraz, 2005eko bihileko horretan baino zortzi puntu gehiago erregistratu dira; enpresen %17k, aldiz, jaitsi egin dela esan dute, hau da, 2005eko azaro-abenduan iritzi hori eman zuten %35 garbitik oso urrun kokatu gara.

Illo beretik, produkzioak ere bilakaera ona izan du, inkestatutako enpresen %42k hazi egin dela adierazi baitute (%24k 2005eko azaro-abenduan); %24k hurrengo hilabeteetan ere hazten jarraituko duela espero dute.

Produkzio gaitasuna bi puntu hazi da 2005eko seigarren sei hilekoaren aldean eta %87an kokatu da.

Saldo garbi positiboak iragarri dira aztertutako aldagai guztietan, eta gehienen ustez egonkortasuna nagusi izango den arren, %24k adierazi dute produkzio handiagoa izango dutela, %22k eskabide-zorro hobe eta salmenta gehiago izango dituztela eta %16k langile kopuru handiago izango dutela.

Eraikuntza

Eraikuntzaren sektoreak indartsu darrai oraindik ere, dena den, adierazle batzuk motelago ageri dira. Alde batetik, lizitazio ofizialak bultzada handia izan du 2006an obra zibilarren gorakadari esker, %124,7 hazi baita; eraikuntza aldiz %21,4 hazi da. Era berean, uztaile arte %4,3 hazi da zementu kontsumoa eta hasitako babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua %1,2 igo da. Etxebizitza libreen eraikuntzak ere hazkunde neurritsua izan du eta, horrela, 2006ko lehen sei hilabeteen amaieran 2.767 etxebizitza libre erregistratu ziren; jarduera mailari eusten bazaio, gaindi liteke 2005. urtean erregistratutako 4.567 etxebizitzaren kopurua. Dena den, okupazio mailaren kopuruak ez dira hain positiboak, izan ere, laugarren hiruhilekoko datuen arabera, urtetik urterako okupazio tasa %0,6 jaitsi da.

La cartera de pedidos total continúa avanzando, así, ésta aumenta en el período noviembre-diciembre de 2006 en el 16% de las empresas, ocho puntos más que en el mismo bimestre de 2005, y disminuye en un 17%, muy lejos del 35% neto de noviembre-diciembre de 2005.

En la misma línea, la producción también presenta una mejoría, creciendo en el 42% de las empresas encuestadas (24% en noviembre-diciembre de 2005) y esperando que continúe haciéndolo en los próximos meses en un 24% de éstas.

La capacidad productiva industrial utilizada aumenta en dos puntos con respecto al sexto bimestre de 2005 situándose en el 87%.

Las expectativas muestran saldos netos positivos en todas las variables analizadas y, aunque la opción mayoritaria apuesta por la estabilidad, un 24% opina que crecerá su producción, un 22% que aumentarán la cartera de pedidos y las ventas y un 16% espera incrementar la plantilla.

Construcción

El sector de la construcción muestra todavía un vigor considerable, aunque algunos de sus indicadores presentan una situación más moderada. Por una parte, la licitación oficial ha presentado en 2006 un importante impulso, basado principalmente en la fortaleza de la obra civil, que se incrementa en un 124,7%, mientras que la edificación lo hace en un 21,4%. También aumenta, en un 4,3%, el consumo de cemento hasta julio, y las viviendas de protección oficial iniciadas se incrementan en un 1,2%. La construcción de viviendas libres parece mostrar también un crecimiento moderado, habiéndose finalizado en el primer semestre de 2006 un total de 2.767 de éstas, cifra que de mantener el nivel de actividad, permitiría sobrepasar las 4.567 del año 2005. Sin embargo, las cifras de ocupación en el sector no son tan positivas, como así lo atestigua que en el cuarto trimestre la tasa de ocupación interanual disminuye en un 0,6%.

Zerbitzuak


Zerbitzuen sektoreak hazkunde iraunkorra duela antzeman daiteke, eta hazkunde hau are dinamikoagoa da turismoaren edo garraioaren kasuan. Merkataritzak eta enpresentzako zerbitzuek hazkunde ahulagoa izan dute.

Pertsonen ekipamenduan oinarritutako merkataritzaren azpisektoreak bilakaera txarra izan du udazken-neguan, eta bilakaera horren eraginez Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea jaitsi egin da urtearen azken zatian, bai jatorrizko balioei bai batez bestekoari dagokionez. Nolanahi ere, hainbat faktorek eragin du jaitsiera hau: batik bat biltegiatze maila handiagoa eta aurreikuspen txarrak azpimarratu behar dira, eta ez horrenbeste salmenten kopuru txikiagoa.

Servicios

Por lo que se refiere al sector de servicios, se puede apreciar, en su conjunto, un ritmo de crecimiento sostenido, que, en el caso del turismo o el transporte es más dinámico. El comercio y los servicios a empresas pierden algo de fuelle.

La mala evolución de la actividad en la campaña otoño-invierno en el subsector del comercio dedicado al equipamiento de las personas, ha determinado que el Indicador de Confianza del Comercio acentúe su descenso en la última parte del año, tanto en valores originales como en su media. El deterioro viene originado, en menor medida por la caída del nivel de ventas y, fundamentalmente, por el incremento de los almacenamientos y el acusado empeoramiento de las expectativas.




Hotel establezimenduei gagozkiela, Bizkaia balantze positiboa lortu du 2006ko ekitaldiaren itxieran. 931.326 bidaiari erregistratu dira guztira, hots, aurreko urtean baino 123.296 gehiago, horrela beraz, %15,2ko hazkundea erdietsi da 2005. urtearen aldean. Gau-igarotzeak 1.746.282 izan dira, hau da, 2005ean baino 247.079 gehiago; kasu honetan, urtetik urterako hazkunde tasa %16,5 hazi da.

Kopuru horiek adierazten digute Bizkaia izan duela bilakaerarik onena hiru lurralde historikoetan, izan ere, bidaiarien %46,4 eta gau-igarotzeen %45,2 bildu ditu. Batez beste emandako egun kopurua 1,86tik (2005ean) 1,88ra (2006an) igaro da. Azkenik, okupazio mailak egonkor eutsi dio, %45,74tik %45,82ra igaro baita.

Bizkaia cierra el ejercicio 2006 con un balance positivo de la actividad de sus establecimientos hoteleros. Se han contabilizado 931.326 viajeros, es decir, 123.296 más que el año anterior, con un crecimiento del 15,2% sobre la cifra de 2005. Las pernoctaciones realizadas ascendieron a 1.746.282, lo que supone 247.079 pernoctaciones más que en 2005, con un crecimiento, en este caso, del 16,5% en tasa interanual.

Con estas cifras, Bizkaia vuelve a mostrar el mejor comportamiento entre los tres Territorios Históricos, concentrando un 46,4% de los viajeros y un 45,2% de las pernoctaciones. La duración de la estancia media ha pasado de 1,86 días de 2005 a 1,88 en 2006. Por último, el grado de ocupación se ha mantenido prácticamente estable, pasando del 45,74% al 45,82%.




Azpiegiturak

Pasadan urtean bezala, Bilboko Portuan orain ezagutu ez bezalako emaitz positiboak erdietsi dira. Merkatugaien trafikoa 37,2 milioi tonakoa izan da 2006aren lehen hamaika hilabeteetan, hau da, 2005eko lehen hamaika hilabeteetan baino 11,9% handiagoa. Hazkunde joera ontziratutako gabeko solidoetan, %13,1arekin 5,5 milioi tona lortu arte, eta ointziratutako gabeko likidoetan, %13,2ko igoera 22,3 milioi tonakin, eman da. Ohiko merkatugaiak, berriz, %8,4 hazi dira (9,4 milioi tona). Bidaieri kopurua, bestalde, %4,3 hazi da.


Infraestructuras

Un año más las positivas cifras del Puerto de Bilbao alcanzan valores desconocidos hasta la fecha. En 2006 tuvo lugar un tráfico de mercancías de 37,2 millones de toneladas, lo que supone un incremento del 11,9% sobre la cifra de 2005. El crecimiento tiene lugar tanto en los graneles sólidos, con un 13,1%, hasta alcanzar los 5,5 millones de toneladas como en los graneles líquidos que registraron un alza del 13,2%, con 22,3 millones de toneladas. La mercancía general aumentó en un 8,4% con un total de 9,4 millones de toneladas. El número de pasajeros, por su parte, aumentó en un 4,3%.



Kostu baxuko hegaldi ugari eskaini dira Bilbo inguruko aireportuetan eta, jakina, horrek eragina izan du Bilbo-Loiu aireportuan, baina hori gorabehera, 2006. urtearen amaieran %0,8 hazi da bidaieriaren kopurua. 3.876.062 lagunek erabili zuten Bilboko aireportua. %2,2ko hazkunde erregistratu da nazioarteko hegaldietan eta %0,2koa, berriz, nazioarteko. Hegaldi erregularretako erabiltzaile kopurua %1,3koa izan da, hegaldi charterretako erabiltzaileena, aldiz, %10,9 jaitsi da. Guztira, 52.198 hegaldi komertzial erregistratu dira 2006an, hots, 2005ean baino %0,9 gehiago.

Tras un año de altibajos, propiciados por la competencia que la oferta de vuelos de bajo coste presentaba en los aeropuertos colindantes, en las cifras de pasajeros registrados en el Aeropuerto de Bilbao-Loiu, el saldo final de 2006 muestra un crecimiento del 0,8%. Un total de 3.876.062 personas utilizaron las instalaciones aeroportuarias vizcaínas, con un crecimiento del 2,2% en los vuelos internacionales y del 0,2% en los nacionales. El crecimiento de pasajeros fue del 1,3% en los vuelos regulares, mientras que los usuarios de los vuelos charter disminuyeron en un -10,9%. Un total de 52.198 operaciones de vuelos comerciales se llevaron a cabo en 2006, lo que supone un 0,9% más que en 2005.



Kanpo merkataritza


Bizkaiko enpresen esportazioek hazten jarraitu badute ere, inportazioak ere dezenteko igo dira barne eskaerak izan duen dinamismoaren eraginez, horrela beraz, merkataritza defizita ere areagotu egin da. Bizkaiko merkataritza balantzak 3.947 milioi euroko balio negatiboa erdietsi zuen urtaril-azaroan, 2005eko aldi berean baino %21,9 gehiago.

2006ko lehen hamar hilabeteetan metatutako datuek adierazten digute Bizkaiko esportazioak 6.037 milioi eurokoak izan direla eta inportazioak 9.984 milioi iritsi direla. Laburbilduz, esportazioak %23,7 hazi dira eta inportazioak, berriz, %24,1.

Comercio Exterior

A pesar de que las exportaciones de las empresas de Bizkaia continúan mostrando un destacado crecimiento, el importante impulsor, derivado del sensible dinamismo de la demanda interna, origina que el déficit comercial siga creciendo. Así, la balanza comercial de Bizkaia alcanzó en enero-noviembre un valor negativo de 3.947 millones de euros, un 21,9% más que en el mismo período de 2005.

Los datos acumulados de los diez primeros meses de 2006 muestran que las exportaciones de Bizkaia ascendieron a 6.037 millones de euros, mientras que las importaciones alcanzaron los 9.984 millones. Estas cifras suponen, respectivamente, incrementos del 23,7% y 24,1%.



Enpresa dinamismoa


2006an 2.987 enpresa berri sortu dira Bizkaian. Jarritako kapitala 322 milioi eurokoa izan da, beraz, enpresa bakoitzeko batez besteko kapitala 107.974 eurora iritsi da. Horrek esan nahi du 2005ean baino 208 sozietate gehiago dagoela, 2005ean 2.779 enpresa sortu zirelako.

Sortu berri diren enpresa gehienak zerbitzuen sektorekoak dira, %64 alegia, kapital sozialaren %73,5 ordezkatzeko dute eta 117 sozietate gutxiago dago. Eraikuntzaren sektorean 562 enpresa sortu dira, hau da, 2005ean baino 31 konpainia gehiago dago, Bizkaian sortutako konpainia guztien %18,8 dira eta kapital sozialaren %8,5 ordezkatzeko dute. 2006an sortutako sozietateen %16,5 industriaren sektorekoak dira eta kapital sozialaren %17,1 ordezkatzeko dute (6,1 milioi euro). Sektorearen batez besteko kapitala 112.145 euro da enpresa bakoitzeko. Izan ere, 169 manufaktura industria sortu dira, 2005ean baino hamabi gehiago, nabarmen hazi direlarik energia fotovoltaikoa ekoizten dutenak.

Dinamismo empresarial

En el año 2006 se han creado en Bizkaia un total de 2.987 nuevas sociedades con un capital aportado que asciende a 322 millones de euros, lo que supone un capital medio por empresa de 107.974 euros. Esta cifra supone un incremento de 208 nuevas sociedades con relación a 2005, año en el que se crearon 2.779 empresas.

Las actividades relacionadas con el sector de servicios, con un 64% de las nuevas empresas creadas, ocupan el primer puesto, totalizan un 73,5% del capital social y una sufren una disminución en 117 sociedades. En el sector de la construcción se han constituido 562 nuevas compañías, 31 más que en 2005, suponiendo un 18,8% de las empresas creadas en Bizkaia, con un 8,5% del capital social. Un 16,5% del conjunto de sociedades creadas en 2006 corresponden al sector industrial, con un 17,1% del capital social, lo que supone 6,1 millones de euros. El capital medio del sector se sitúa en 112.145 euros por empresa. En concreto, se han creado un total de 169 industrias manufactureras, doce más que en 2005. Resulta especialmente significativo el gran crecimiento de las empresas dedicadas a la producción de energía fotovoltaica.



Lan merkatua


Bizkaiko ekonomiak bizi duen momentu onaren ildotik, lan merkatuak ere indartsu eutsi dio 2006an. Eustat-en Jardueraren Araberako Biztanleria Inkestako datuek diotenez, azken urtean 16.500 lanpostu sortu dira eta %3,4ko hazkundea erregistratu da. Hobekuntza hau emakumezkoen eta gizonezkoen kolektiboetan igarri da, hala ere, emakumezkoen kolektiboak izan du eboluziorik onena, aurreko urteko aldi berean baino 8.800 emakume landun gehiago baitago.

Azken urtean langabezi tasa ehuneko 2,7 puntu jaitsi da (%6,7tik %4ra), izan ere, 2006an 6.800 langabetu gutxiago erregistratu dira Bizkaian.

Mercado de trabajo

En 2006 el mercado de trabajo ha mantenido un vigor considerable, en consonancia con el buen momento de la economía de Bizkaia. Los datos de la Encuesta de Población en Relación con la Actividad elaborada por el Eustat muestran que, en el último año, se han creado 16.500 puestos de trabajo netos, lo que supone un incremento del 3,4%. La mejoría ha afectado tanto a los varones como a las mujeres, aunque son estas últimas las que han experimentado una mejor evolución, con 8.800 ocupadas más que en el mismo trimestre del año anterior.

La tasa de paro en el último año ha descendido 2,7 puntos porcentuales (del 6,7% al 4%), con lo que 6.800 personas han abandonado la situación de desempleo en Bizkaia a lo largo del año 2006.



BIZKAIKO EKONOMI ADIERAZLEAK	Iturria	Epea	2005	2006	% 06/05
JARDUERA					
- Industriaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Azar-aben.	-12	2	--
- Industri Produkzioaren Indizea (1)	EUSTAT	Urtarrila- aben.	4,4	4,3	--
- Industriako Energia Elektrikoaren Kontsumoa (milaka MWh)	IBERDROLA	Urtarrila- aben.	7.956	8.364	5,1
- Produkzio Gaitasunaren Erabilera (%)	CCB	Azaroa- aben.	85	87	--
- Eskabide-zorroa (2)	CCB	Azaroa- aben.	-27	-1	--
- Zementu Kontsumoa (milaka tona.)	OFICEMEN	Urtarrila-uztaila	390	407	4,3
- Lizitazio Ofiziala (milioi euro)	SEOPAN	Urtarrila- aben.	854	1.682	96,9
- Bilboko Portuko merkatugaien Trafikoa (milaka tona.)	AUT. PORT.	Urtarrila-abendua	33.237	37.208	11,9
- Loiuako Aireportuko bidaia-erien Trafikoa (milaka pertsona)	AENA	Urtarrila-aben.	3.840	3.876	0,8
- Gau Igarotzeak hoteletan (milaka pertsona)	EUSTAT	Urtarrila- aben.	1.499	1.746	16,5
- Merkataritzaren Konfiantza Adierazlea	CCB	Azaroa-abendua	-15	-38	--
ESKABIDE ETA PREZIOAK					
- Kontsumitzailearen konfiantza adierazlea	FCVN	IV. hiruilekoa	-6	-4	--
- Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarrila-abendua	30.680	29.307	-4,5
- Industri Ibilgailuen Matrikulazioa	DGT	Urtarrila-abendua	7.507	7.137	-4,9
- Bizkaiko KPI	INE	Abendua	116,1	119,0	2,5
- Txikizkako Merkataritzaren salmenten Indizea (3)	EUSTAT	IV. hiruilekoa	125,3	129,1	4,0
LAN MERKATUA					
- Biztanle Okupatuak (milaka pertsona)	EUSTAT	IV. hiruilekoa	486,6	503,1	3,4
- Biztanle Langabetuak (milaka pertsona)	EUSTAT	IV. hiruilekoa	34,7	20,8	-40,0
- Langabezi Tasa (%)	EUSTAT	IV. hiruilekoa	6,7	4,0	--
- Erregistraturiko Langabezia (milaka pertsona)	INEM	Abendua	47,9	42,2	-11,9
- Gizarte Segurantzako Afiliatuak (milaka pertsona)	MTAS	Abendua	470,3	481,2	2,3
KANPO SEKTOREA					
- Esportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarrila-azaroa	4.879	6.037	23,7
- Inportazioak (milaka euro)	ADUANAS	Urtarrila-azaroa	8.117	9.984	23,0
ENPRESA DINAMISMOA					
- Sozietateen sorrera	CCB	Urtarrila-abendua	2.779	2.987	7,5

- (1) Aurreko urteko aldi berarekin konparatuz izandako gehikuntza
(2) Erantzunen saldo garbia
(3) Aurreko urteko aldi bereko batez bestekoaren gaineko gehikuntza

INDICADORES ECONÓMICOS DE BIZKAIA	Fuente	Período	2005	2006	% variac.
ACTIVIDAD					
- Indicador de Confianza de la Industria	CCB	Nov. – dic.	-12	2	--
- Índice de Producción Industrial (1)	EUSTAT	Enero-dic.	4,4	4,3	--
- Cons. de Energía Eléctrica en la Industria (miles MWh)	IBERDROLA	Enero-dic.	7.956	8.364	5,1
- Utilización de la Capacidad Productiva (%)	CCB	Nov. – dic.	85	87	--
- Nivel de la cartera de pedidos (2)	CCB	Nov. – dic.	-27	-1	--
- Consumo de Cemento (miles Tm.)	OFICEMEN	Enero-julio	390	407	4,3
- Licitación Oficial (millones euros)	SEOPAN	Enero-dic.	854	1.682	96,9
- Tráfico de mercancías Puerto de Bilbao (miles Tm.)	AUT. PORT.	Enero-dic.	33.237	37.208	11,9
- Tráfico de pasajeros Aeropuerto Loiu (miles personas)	AENA	Enero-dic.	3.840	3.876	0,8
- Pernotaciones en hoteles (miles de personas)	EUSTAT	Enero-dic.	1.499	1.746	16,5
- Indicador de confianza del Comercio	CCB	Nov. – dic.	-15	-38	--
DEMANDA Y PRECIOS					
- Índice de confianza del Consumidor	FCVN	IV trimestre	-6	-4	--
- Matriculación de Automóviles	DGT	Enero-dic.	30.680	29.307	-4,5
- Matriculación de Vehículos Industriales	DGT	Enero-dic.	7.507	7.137	-4,9
- IPC Bizkaia	INE	Diciembre	116,1	119,0	2,5
- Índice de Ventas del Comercio Minorista(3)	EUSTAT	IV trimestre	125,3	129,1	4,0
MERCADO LABORAL					
- Población Ocupada (miles personas)	EUSTAT	IV trimestre	486,6	503,1	3,4
- Población Parada (miles personas)	EUSTAT	IV trimestre	34,7	20,8	-40,0
- Tasa de Paro (%)	EUSTAT	IV trimestre	6,7	4,0	--
- Paro registrado (miles personas)	INEM	Diciembre	47,9	42,2	-11,9
- Afiliados a la Seguridad Social (miles personas)	MTAS	Diciembre	470,3	481,2	2,3
SECTOR EXTERIOR					
- Exportaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero-noviém.	4.879	6.037	23,7
- Importaciones (millones de euros)	ADUANAS	Enero-noviém.	8.117	9.984	23,0
DINAMISMO EMPRESARIAL					
- Creación de sociedades	CCB	Enero-dic.	2.779	2.987	7,5

- (1) incremento con relación al mismo período del año anterior. Datos corregidos a efecto de calendario
(2) saldo neto de respuestas
(3) incremento acumulado sobre el mismo período del año anterior

